

AVISO

INFORMACION SOBRE LA PUESTA EN MARCHA DEL PLAN DE EMPLEO DE ALONSOTEGI 2018

Próximamente está prevista la contratación de trabajadores por el Ayuntamiento de Alonsotegi de acuerdo la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2018 de Lanbide (Servicio Vasco de Empleo)

El procedimiento que se seguirá para la selección será el siguiente:

1-El día 29 de octubre, el Ayuntamiento entregará las ofertas de empleo en la oficina de Lanbide, para que sean publicadas en la web www.lanbide.net, en el apartado ofertas de Lanbide, donde estarán publicadas y abiertas para inscribirse hasta el día 15 de noviembre de 2018, inclusive.

2-Las personas interesadas en los puestos a contratar, deberán de estar desempleadas/os, inscritas/os en Lanbide, ser residentes en el municipio de Alonsotegi, y cumplir los requisitos imprescindibles de cada oferta.

Para ello deberán tener actualizados sus datos y sus ocupaciones en Lanbide, y **OBLIGATORIAMENTE** inscribirse en las ofertas que sean de su interés, bien acudiendo a la oficina de LANBIDE para que les inscriban, o bien inscribiéndose a través de la web de LANBIDE (www.lanbide.net) en la pestaña de MI LANBIDENET con su clave personal.

Los códigos de oferta de los puestos ofertados son los siguientes:

- **Código de la Oferta: 162018011889**
1 Oficial de albañilería de segunda (Experiencia mínima de 12 meses en el puesto)
Cod. Ocupación: 71211015
- **Código de la Oferta: 162018011886**
1 Oficial de pintor empapelador de segunda (Experiencia mínima de 12 meses en el puesto)
Cod. Ocupación: 96011029
- **Código de la Oferta: 162018011884**
1 Peón obra pública
Cod. Ocupación: 96011029
- **Código de la Oferta: 162018011887**
1 Peón de construcción de edificios
Cod. Ocupación: 96021013
- **Código de la Oferta: 162018011885**
1 Empleado/a administrativo (ayudante) (Experiencia mínima de 12 meses en el puesto)
Cod. Ocupación: 43091029

(Conforme a la resolución de cupos obligatorios que regula este programa, el 30% de los puestos de trabajo tienen que ser cubiertos por titulares de renta de garantía de ingresos, y al menos el 40% mujeres y el 15% mayores de 55 años.)

3- Una vez recibidos los Curriculumus enviados por LANBIDE al Ayuntamiento, se procederá a la realización de entrevistas individuales a todos aquellos candidatos que cumplan los requisitos.

Para la citada entrevista se llamará desde el Ayuntamiento de Alonsotegi a los candidatos/as para darles fecha y hora de la entrevista a realizar en el propio Ayuntamiento, a la citada entrevista se deberá de acudir con la siguiente documentación o presentarla hasta el 29 de noviembre de 2018 en el Ayuntamiento, fuera de esta fecha no serán admitidos.

1-Certificado de periodos de inscripción de Lanbide

2-Vida laboral de la Seguridad Social de todos los integrantes de la unidad familiar.

3-Certificado de minusvalía si fuera el caso.

4-Certificado de percepción o no de prestación o subsidio (SEPE) – (solo NO perceptores de RGI)

4- Tras la realización de la entrevista y de acuerdo a los criterios y puntuaciones aprobadas por todos los partidos políticos con representación en el Ayuntamiento de Alonsotegi, se elaborarán los correspondientes informes de cara a la contratación de las personas que hayan alcanzado mayor puntuación respetando siempre los cupos establecidos en la resolución de Lanbide que regula la contratación de estas personas.

Alonsotegi a 30 de octubre de 2018

EL ALCALDE



ABISUA

ALONSOTEGIKO 2018ko ENPLEGU-PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA

Aurreikusita dago hemendik gutxira Alonsotegiko Udalak langileak kontratatzea, Lanbidek (Euskal Enplegu Zerbitzua) emandako diru-laguntzaren bidez, bat etorri 2018 ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiarekin.

Honako prozedura honi jarraituko zaio langileak hautatzeko:

1- Urriaren 29an, Udalak enplegu-eskaintzak entregatuko ditu Lanbideren bulegoan, www.lanbide.net webgunean argitara ditzaten, Lanbideko eskaintzen atalean; bertan argitaratuta egongo dira **2018ko azaroaren 15era arte, egun hori barne, nahi dutenek izena eman dezaten.**

2- Bete beharreko lanpostuetan aritzeko interesa dutenek honako baldintza hauek bete behako dituzte: **langabezian egotea, Lanbiden izena emanda egotea, Alonsotegin bizitzea eta eskaintza bakoitzerako ezarritako nahitaezko eskakizunak betetzea.**

Interesdunek beren datuak eta okupazioak eguneratuta eduki beharko dituzten Lanbiden, eta NAHITAEZ izena eman beharko dute interesatzen zaizkien eskaintzetan; horretarako, LANBIDERen bulegoetara joan daitezke, izena eman diezaizkien, edo zuzenean izena eman dezakete LANBIDERen webgunean (www.lanbide.net), NIRE LANBIDENET erlaitzean, beren gako pertsonala erabiliz.

Hauek dira lanpostu-eskaintzen kodeak:

- **Eskaintzaren kodea: 162018011889**
1 bigarren mailako igeltserotzako ofizial (gutxienez 12 hilabeteko esperientzia lanpostuan)
Okupazio-kod.: 71211015
- **Eskaintzaren kodea: 162018011886**
1 bigarren mailako margotzaile eta paperezatzaile ofizial (gutxienez 12 hilabeteko esperientzia lanpostuan)
Okupazio-kod.: 96011029
- **Eskaintzaren kodea: 162018011884**
1 obra publikoko peoi
Okupazio-kod.: 96011029
- **Eskaintzaren kodea: 162018011887**
1 eraikinen eraikuntzako peoi
Okupazio-kod.: 96021013
- **Eskaintzaren kodea: 162018011885**
1 administrari (laguntzailea) (gutxienez 12 hilabeteko esperientzia lanpostuan)
Okupazio-kod.: 43091029

(Programa hau araupetzen duen ebazpenean ezarritako nahitaezko kuoten arabera, lanpostuen % 30 diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrekin bete behar dira; % 40, gutxienez, emakumeekin eta % 15 55 urtetik gorakoekin.)

3- LANBIDEk Udalera bidalitako curriculumak jaso ondoren, banakako elkarrizketak egingo zaizkie baldintzak betetzen dituzten hautagai guztiei.

Elkarrizketa hori egiteko, Alonsotegiko Udalak deituko die hautagaiei, eguna eta ordua esateko. Udaletxean bertan egingo da elkarrizketa. Hautagaiek dokumentazio hau eraman beharko dute elkarrizketara edo, bestela 2018ko azaroaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dute udaletxean (egun hori igarotakoan ez da onartuko):

1- Lanbiden inskribatuta egondako aldien ziurtagiria

2.- Familia-unitate osoaren Gizarte Segurantzako lan-bizitza.

3-Minusbaliotasun-ziurtagiria, hala badagokio

4-Prestazio edo laguntzarik jasotzen duen edo ez egiaztatzen duen agiria (SEPE) – (DSBE jasotzen EZ dutenek bakarrik)

4- Elkarrizketa egin ondoren, eta Alonsotegiko Udalean ordezkariak dituzten alderdi politiko guztiek onetsitako irizpide eta puntuazioei jarraituz, dagozkion txostenak egingo dira, eta puntuazio handiena lortu duten pertsonak kontratatuko dira, betiere pertsona horien kontratazioa araupetzen duen Lanbideren ebazpenean zehaztutako kuotak errespetatuz.

Alonsotegin, 2018ko urriaren 30ean.

ALKATEA

